

txoritxoari mokoka

Xarlo Etxazarreta

Europa geldirik

Artek zabaldu du EBri buruz Nick Fraser-ek European zehar eginikako ikerketa bat. Berriketari hori franko-inglesa da, eta europar amoratua. Bere dokumentalak frogatu digu gauzak ez direla hain antzintatuak; banku eta ekonomia arloan bai, baina instituzio, eskubide eta eskuzabaltasun mailetan oso uzkur dira estatuak eta horien buruzagiak. Iduri luke European ohizko gerlen erroak kenduz geroz diruaren inguruan dituztela kezka nagusiak. Batasunean sartu nahi dutenek behar dute

IKUSTEKO

Oso aste aberatsa izan behar luke honako hau. Gai desberdinak aipatuko dituzten hiru emankizun aipagarri: gaur bertan bi emanaldi interesgarri izango dira Frantziako TF2 katean eta F3 katean. TF2an *Envoyé spécial : L'Amérique en état de guerre* izenburuko saioa izanen da, 20:50ean. Eta TF3 katean, ordu berean, pelikula on bat, Vietnamgo gerraz: *Platoon*. Bihar, berriz, Arte kateak erreportaia bikain bat emitituko du, 22:30ean: *Les Yamomanis, guerriers de l'Amazonie*. Aste batzuetan telebistari buruz gure iritzia aldatzeko moduko emankizunak ateratzen dituzte astakeria askoren tartetik.

frogatu kapitalismoa onartzen dutela eta kanpotiar etorkinei mugak hetsi. Azpimarragarria da EBN bakarkeria ekonomikoa nagusi dela. Bruselako eta Estrasburgoko Legebiltzarren inguruan milaka *lobby* dira ibilki eta, jakina, filantropia egiteko asmorik gabe. Politika arloan eta instituzioak gaurkotzeko, oso uzkur; funtzionamenduan, laino lodi eta ilunaren antza du EBk; Europa ideal baten zain daudenek beharko dute pazientzia. Gero eta gehiago, zeren eta estatu gehiago sartu eta gauzak zailago. Jende xehetik oso urrun sentitu dut EB: Berak egin beharreko gauza batzuk baztertzeko dituen eta herrien peko izan behar luketenetan sudurra gehiegi sartuz.

LABURAEAN

TELE 5 GABONETAKO PROGRAMAZIOA

Mota guztietako saioak Gabonetan Tele 5 katean

Aste honetan aurkeztu du Espainiako Tele 5 kateak Gabonetarako programazioa. Hilaren 24an, Emilio Aragonen kontzertu bat eskainiko du. Hilaren 28an, *Inocente, inocente* gala eskainiko dute, seigarren urtez. Filmei dagokionez, honako hauek emitituko dituzte, besteak beste: *George de la jungla*, *La historia de Mowgli*, *La princesa cisne*, *Sister Act 2*. Dokumentaletan *Caminando entre dinosaurios* saileko bi erreportaia berri estreinatuko dira. Eta Urtezaharreko kanpaien emankizunean, Felix Alvarez eta Mariona Xucla egongo dira Tele 5 katean.

TVE URTEZAHARREKO KANPAIAK

1.320.000 pezeta kostatuko da urteko azkeneko iragarkiaren segundo bakoitza

Telebistan iragarkiak jartzea garestia dela badakigu, baina Urtezahar gauean prezioak ikaragarri igotzen dira. TVEko kanpaien emankizuna Ramon Garciak eta Paloma Lagok aurkeztuko dute, eta aurretik Retevisioren iragarkia etorriko da. Iragar-ki horretako segundo bakoitzak 1.320.000 pezeta kostatuko zaio Retevisioni (52.800 libera). 2001. urteko lehenengo iragarkia, berriz, 990.000 pezeta kostatuko da segundoko (39.600 libera).

LA2 'DÍAS DE CINE'

'Días de cine' saioak bederatzi urte bete ditu

400. saioa beteko du gaur La2 kateko *Días de cine* programak (00:00etan). Antonio Gasset da saioko zuzendari eta aurkezlea, eta duela gutxi adierazi du informazioan subjektibotasuna defendatu behar dela, eta are gehiago zinemari.

GABONETAKO PROGRAMAZIOA. ETBk 25 saio berezi eskainiko ditu bihartik urtarrilaren 7ra



INIGO AZKONA

ETBko Gabonetako programazioaren berri emateko prentsaurrekoan aurpegi ezagun ugari izan zen.

PELLO SARASOLA

ETBko programazio arduraduna

«Edozein telebista katetan aurten ikusi ahalko diren estreinaldi onenak eskainiko ditugu ETBko lehenengo katean»

Mendiaz gain, beste kirol batzuk ere agertuko dira ETBn Gabon garaian: lau t'erdiko finala eta Euskadiren eta Marokoren arteko futbol partida emitituko dituzte.

Gabon gauean, *Hator kantari*, *hator* saioa emango dute aurten ere. Juan Mari Uriarte, Gipuzkoako gotzaina; Raul abeslari gasteiztarra, Karlos Argiñano eta Osasunako jokalaria ariko dira aurten Natxo de Feliperen aginduetara.

Euskal Herria: Lau haizeetara programaren emanaldi berezia ere prestatu dute Euskal Telebistan. *Lau haizeetara* berri horren berezitasuna neguko girokoa izango da. Hiru Erregeen Mahaia mendian hasi eta Muskizera iritsiko da hamar ataletan zehar zerutik Euskal Herrira egindako begirada. Umoreari dagokionez, Mr. Beanen azken saioa emango dutela gaineratu zuten eguberrietako programazio aurkezpena egin zutenean.

Urte berria 'Sorginen laratza'-rekin

Urte berriari ongietorria emateko, *Sorginen laratza* saioa egiten duen taldea emanaldi berezia ari da prestatzen. ETB2ko ikusleek, berriz, *La primera noche del siglo XXI* ikusi ahalko dute. Alexis Valdes eta Yolanda Alzola —Lorena Bernalen ordezkari— izango dira aurkezleak. Urtero legez, iragarki berezia prestatu dute ETBn Gabonak direla eta. Aurten kamerekin telebista pantailetara azaleratzen ez duten eremuan lan egiten duten langileen aurpegiak agertuko dira.

Haurrak izar Gabonetan

'Sorginen laratza' berezia eta «zinema onena» ETB1eko eskaintzaren barruan

Iñigo Olabarri | BILBO

Euskal Telebistak Gabonetako programazioaren berri eman zuen atzo Bilbon. Bingen Zupiriak, Euskal Telebistako zuzendariak, eta Pello Sarasolak, ETBko programazio arduradunak, eman zuten berrikuntzen berri, Xabier Euzkitzek, Klaudio Landak, Yolanda Alzolak, Ruth Martinezek, Ilaski Serranok eta Felix Linaresek lagunduta.

Bingen Zupiriak eta Pello Sarasolak nabarmendu zutenez, haurrek, zinemak eta kirolak tarte garrantzitsua izango dute hilaren 15etik urtarrilaren

7ra arte. «Zinemaren barruan kalitate handiko estreinaldi bi emango ditugu ETB 1ean, edozein telebistatan ikusi ahalko diren onenak: *Beltzez jantzitako gizonak* eta *Nire lagun minaren ezkontza*», nabarmendu zuen Pello Sarasolak. Asterixen zazpi film ere eskainiko dituzte.

Haurrek *Betizu* programaren emanaldi bereziak izango dituzte. Goizean eta arratsaldean emango dute saio hori, astelehenetik igandera. *Barre Busa* saioak ere bigarren denboraldia hasiko du Gabonetako programazioaren barruan. Horretaz gain, hilaren 28an *Barre*

Plusa gurasoentzako lehiaketa berezia eskainiko dute. *Ahmed*, *Alhambra*ko printzea animaziozko euskal filma ere emitituko dute Gabonetako programazioaren barruan.

Felix Iñurrategi omenduko dute

Iñurrategi&EITB 2000 programa ere Gabonetako programazioaren barruan hasiko da. Saio horren lehenengo atalean Felix Iñurrategi gorazarre egingo diote. Alberto Iñurrategi aurkeztuko du programa. ETB1ean eta ETB2an eskainiko dutela iragarri zuten programazioaren aurkezpenean. ETB1ean Gabon gauean emango dute lehen atala, eta hilaren 30ean bigarren katean emitituko dute.